

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

3. MAILA**Gaia: HAURREN ARGAZKIAK INTERNETEN ARGITARATZEA ARRISKUTSUA DA****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Haurrek gurasoengandik ikasten dutenez, argazki asko atera eta Interneten jarriko dituzte handitzen direnean.
- Gure etxean gertatzen den guztia argazki bidez erakusten badugu, non geratzen da intimitatea?
- Gure haurren eskubideak zapaltzen ditugu baimenik gabe argitaratzen baditugu beraien argazkiak.
- Gurasoen ardura da haurrak arriskuetatik babestea.
- Batek daki nork eta nola erabiliko dituen argazki horiek! Behin sarean jarriz gero, publiko bihurtzen dira.

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

3. MAILA**Gaia: GURE HAURREN ARGAZKIAK INTERNETEN ARGITARATZEA OSO AUKERA POLITA DA****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Aukera zoragarria eskaintzen digu Internetek gure haurren argazkiak lagun eta senideekin partekatzeko.
- Kontuz ibilita, ez dugu zertan arazorik izan argazkiekin.
- Gure berri emateaz gain, besteen berri izateko aukera ematen digute argazkiek.
- Blogarien kasuan, argazkiek lagundu egiten dute idatzitakoa hobeto ulertzen.
- Denoi gustatzen zaigu argazki politak ikustea eta haurrenak, bereziki maitagarriak direla ezin da ukatu.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

ARGAZKIAK ATERATZEKO GARAIAN.- A la hora de sacar fotos.

ARRISKUETATIK BABESTU.- Proteger de los peligros.

ARRISKUTSUA IZAN.- Ser peligroso/a.

BAIMENIK GABE ARGITARATU.- Publicar sin permiso.

ESKUBIDEAK ZAPALDU.- Pisotear los derechos.

EZ DUGU ZERTAN ARAZORIK IZAN.- No tenemos por qué tener problemas.

EZIN DA UKATU.- No se puede negar.

GURE BERRI EMAN.- Dar a conocer, anunciar.

KONTUAN IZAN/HARTU.- Tener en consideración, tener en cuenta.

PARTEKATZEKO AUKERA ESKAINI.- Ofrecer la oportunidad de compartir.

PUBLIKO BIHURTU.- Convertirse en (algo) público.

-T(Z)EKO AUKERA IZAN.- Tener la oportunidad de.

TENTUZ/KONTUZ IBILI.- Actuar con precaución/cuidado.

IDEIA LAGUNGARRIAK

- *Gero eta ohikoago bihurtu da haurren argazkiak sare sozialetan argitaratzea. Jende guztiak egiten badu, zein da arazoa?*
- *Gauza berrien aurrean, beti aipatzen dira arriskuak, baina denborarekin, onartu egiten dira.*
- *Okerrena da behin klik eginda, argazki hori nora doan eta nork ikusi edo gordeko duen jakiteko modurik ez daukagula, kontrola galtzen dugula.*
- *Gure haurrak hazi eta heldutasunera iristen direnean, ez al digute egindakoa leporatuko?*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

- 2191616** [Haurren argazkiak Interneten partekatzearen arriskuak](#)
- 1858151** [Kontuz euskarri digitalean gordetako informazioarekin](#)
- 1837855** [Teknologia berrien onurak eta arriskuak](#)
- 1833675** [Teknologian heztearen garrantzia](#)

Beste erreferentzia batzuk:

[«Gurasoek erne ibili behar dute umeen argazkiak sarean jartzean»](#)
[Nola babestu seme-alabak Interneteko arriskuetatik?](#)